

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Cristóbal
Balenciaga,
Moda eta
Ondarea

Testuinguruak



Zeta beltzeko krepean egindako soinekoa, kasaka itxurako gaineko gonarekin 1947.
CBM 2018.1201
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea

ERAKUSKETA. 2019/03/01 – 2020/01/12

Moda eta Ondarea, elkarrizketa ezinezkoa ia, iragankorra eta iraunkorra aurrez aurre jartzen duena: indarraldia unetik eratorria duen hori eta, aurrean, iraganetik balioa jasotzen duena. Hala ere, elkarrizketa hori badabil Cristóbal Balenciaga hizpide hartzen dugunean.

Horixe da *Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea* serie kuratorialaren abiapuntua. Balenciagaren sorkuntzalanek kale eta aretoetatik ibiltzeari utzi, eta artxiboak, galeriak eta museoak betetzen hasi zutenekoa. Ez dute gehiago balio gorputzak edertu eta berez eder diren aldetik miretsiak izateko. Modako aldizkarien azaletatik atera, eta arteko aldizkarietara joaten dira. Hala, erabilera eskusiboko patina galdu, eta jende guztien eskura geratzen dira arlo sozial guztietan.

Museoak 2018an ekin zion kuratore-serie honi, diskurtso kronologiko eta ebolutibo bati jarraituz, Cristóbal Balenciagaren lana ikertzeko, eta balioesteko garai batean jantzi huts bat izan zena gaur egun museoko bilduman egon arte izan den prozesua.

Lehen edizioaren azpitoluak *-Elkarrizketak-* erakutsitako objektuak erreferente bisualekin eta ikerkuntzako erreferenteekin dituen loturak aipatzen zituen, objektuari berari erantzen zaizkion eta ondare-izaera ematen dioten interpretazio-geruza horiekiko lokarriak.

Emanaldi berri honetan *-Testuinguruak-*, historiak eta modak partekatzen dituzten alderdiak ikertzen ditu, errezelaren atzeko espazioak –hor egiten baita dena–, eta goi-joskintzako orduko garaiaren eta lan museologikoaren orainaren arteko paralelismo formalak miatzen.

Erakusketako diskurtsoa, ondoan dituen piezen aukeraketa eta, orobat, espazioaren kontzeptualizazioa eta diseinua Cristóbal Balenciaga Museoko taldearen eta fashion curator ospetsu Judith Clark-en arteko elkarlanaren emaitza da, eta serie honen hastapena zela eta 2018an hasitako lanaren jarraipena.

Gaueko soinekoa, shantung ehunez egina, jengibre-koloreko zetazkoa, zilar-koloreko hari eta ezkaekin brodatua, eta barren asimetroarekin. 1957. CBM 2018.1201
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Erakusketa

Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea. Testuinguruak erakusketak ibilbide kronologikoa egiten du Cristóbal Balenciagaren ibilera profesionalean barrena, eta ikuskera berria eraikitzen du, aurreko eta oraingo ikerketak metatuz, txertatuz eta asimilatuz.



Erakusketak, firma enblematikoaren historia eta jostunaren sorkuntzako bilakaera erakusteaz gain, agerian jartzen du Balenciagaren modaren eta museoko ondarearen artean dagoen harreman berri bat, haien testuinguruaren arteko paralelismoa bilatuz. Testuinguru horiek aukera ematen digute Cristóbal Balenciagaren sorkuntza-lana non eta nola garatu zen ulertzeko.

Haietako batzuk ezkutatuta daude, eta goi-joskintzako lanbidearen eta gauzak egiten jakitearen parte dira, esate baterako, *atelier*-en lanerako espazioak: ehunak, tresnak eta eskuak, edo emakumezko bezero eksklusiboentzako aretoko glamour luxuzkoa eta intimoa. Aldi berean, museoko artxiboetako eta errestituzio-laborategiko giro monastikoa testuinguru ezkutua eta eskuraezina da, eta objektuen historiaren parte ere bada.

Beste testuinguru batzuk guztiz publikoak dira, ingurune sozio-kulturaleri eta gertaera historikoei lotuta daude, eta markatu egiten dituzte sorkuntza-lanen unea, eta XX. mendeko kulturean, artean, diseinuan eta modan berrikuntzak hartzeko eta hedatzeko prozesuak. Testuinguru horietan, hedabideek oinarritzko zeregina bete zuten, islatu egin baitzizkiguten, eta, modari dagokionez, sortu ere egin baitzituzten. Hargatik, erakusketen diskurtsoko ahotsetako bat izan ziren.



Boli-koloreko krepezko ezkontza-soinekoa, gorputz estuarekin eta aurrean begizta bat duen gerrikoarekin 1939.
CBM 2012.06
© Cristóbal Balenciaga Museoa

Datu batzuk

Erakusketak sei erakusketa-areto hartzen ditu, museoko 1.000 m², eta janzkerako pieza guztiak berritzen ditu, 80 guztira, gehienak orain arte inoiz erakutsi gabeak. Museoko bilduman sartutako pieza berriak, eta Parisko Balenciaga artxiboko, Parisko Courreges artxiboko, Manchesterreko Arte Ederren Museoko, Madrilgo CIPE Jantziaren Museoko eta Bartzelonako Diseinuaren Museoko gordailuak eta maileguak dira; eta, horrez gain, bilduma pribatuetako piezak ere badaude, hain zuzen, Miami Parodi Costume Collection, eta Bibiñe Belausteguigoitia de Solano-Palacio de Zubieta, Ispaster/Lekeitio, bildumetakoak.

Hautatutako piezek Cristóbal Balenciagaren sorkuntza-prozesuaren berri ematen digute: teknika eta ehuna menperatzearen ondoriozko ikerketa formala; berrikuntza, janzteko silueta berriak sartuta; eta, ondoan, feminotasunaren ideia berriak, eta haren lanaren ezaugarri den eboluzioko hobekuntza, maisuaren ibilbidean barrena izandako etengabeko aurrerapen-zikloan.

Horien ondoan, beste baliabide batzuk: dokumentazioa, lekukotasunak, irudiak, objektuak, patrioiak, janzteko erreplikak, zirriborroak, ehunak, haren bizitza- eta lanbide-ingurunearekin harremanetan jartzen gaituztenak. Teknologia ere agertzen da erakusketa honetan, digitalizazioen bidez interaktibitatea errazteko, aukera ematen baitigu pieza baten xehetasuna ikusteko (megapixela), 360°-ko ikuspegia izateko, haren eraikuntza teknikoko infografiak lortzeko eta, *app* baten bidez, gaikako hainbat ibilbide egiteko.

Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea.
© Cristóbal Balenciaga Museoa





Judith Clarke Balenciaga
Etxearen aretoa aipatzen du.
© Cristóbal Balenciaga Museoa

Judith Clarkekin lankidetzan

Museoa berriz aritu da lankidetzan erakusketen sortzaile eta Londresko London College of Fashioneko Museologiako irakasle Judith Clarkekin, erakusketa berri honi ekiteko.

Judith Clarkek asmatutako elkarrizketak proposamen museografikoen eta instalazioen bidez gauzatu dira, arte garaikideak aurkezteko duen forma, goi-joskintzako artisautza eta Museoko Artxiboaren estetika uztartuta. *Testuinguruak* erakusketa berrian ere agertzen dira, editatuta, berrikusita eta zabaldua, seriea metatze-lana baita, eta aukera ematen baitu, ardatz eta sekuentzia kronologiko berari eutsita, eduki berriak asimilatze eta gehitzeko.

Erakusketako estetikak artxiboko eta errestituzio-laboregietako giro zuri eta garbia ekartzen du gogora, etengabe agertzen baitira kontserbazioko materialak eta barrualde horretako lan-moldeak, normalean bisitarientzat ikusezina eta, aldi berean, misteriotsua eta erromantikoa den museoko espazio pribatukoak. Horrez gain, espazio garrantzitsu batzuk berreskuratu eta erreproduzitu dira, hala nola *atelier*-a edo aretoa, Balenciagaren sorkuntza nola garatzen den ulertzeko.

Judith Clarki buruz

Judith Clarki buruz Judith Clark komisarioa eta erakusketen sortzailea da. Moda eta Museologiako irakaslea da London College of Fashionen (LCF), bai eta Modari buruzko Komisarioritzako Masterreko arduraduna ere. Judith Australiakoa da jatorriz, eta gaztaro gehiena Erroman eman zuen. Londresera joan zen Bartletten arkitektura ikastera. 1997an, bere jantziteriako galeria zabaldu zuen West Londonen, jantziak erakustera bideratutako irabazi asmorik gabeko lehen espazio esperimentalak. Harrezkero, Clarkek 40 erakusketetako komisarioa izan da; besteak beste, hauek nabarmentzen dira *Chloé. Attitudes*, *Anna Piaggi: Fashion-ology* eta *Spectres: When Fashion Turns Back*. Hitzaldi asko egiten ditu modari eta jantziak erakusteko moduari buruz. *Exhibiting Fashion: Before and After 1971* da haren azken argitalpena, lagun eta lankide duen Amy de la Hayerekin batera idatzia. Bertan, ikuspegi egokia eskaintzen du modari buruzko erakusketen goraldiaz.

«Erakusketen serie honek berriz hausnartzen du bi hitzen —Moda eta Ondarea— eta haien erabileren artean dauden mugez. Ondarea estatiko eta finitutzat hartu ohi da, eta erakusketa hauek nahastu egiten dute ikuspegi hori». JUDITH CLARK

Koktel-soinekoa, zeta urdinezko tafetaz egina, zeta urdinezko parpailazko gune gardenekin. 1957.
CBM 2000.51
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciagaren legatu sortzailea

Erakusketako diskurtsoak Cristóbal Balenciagaren lanean izandako etengabeko bilakaera aletzen du, egilearen ibilbide profesional osoa barnean hartzen duen hari kronologiko baten bidez. *Testuinguruak* erakusketak *Elkarrizketak* erakusketatik oinordetzan jasotako denborazko haria hedatzen du, Cristóbal Balenciagaren biografia osoa hartzeko, “jardunean” emandako erretiroaren eta 1972an desagertzeak izan zuen inpaktuaren berri emanez, sei areto fisikotan eta bost aldi kronologikotan garatuta.

Artile beltzezko bengalinaz egindako emakume-janzkia. 1912.
CBM 1998.01
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Hastapenak eta eraginak (1912-1936)

Cristóbal Balenciagak Donostian ekin zion bere enpresa-eta sormen-ibilbideari; garai hartan, errege-erreginek hiri horretan egiten zuten udaldia, eta turista asko biltzen ziren euskal kostaldera.

Balenciagak, hasierako garaietan, Frantziako goi-joskintzako sorkuntza-lanak erosi, aztertu eta birsortu zituen, batik bat Vionnet, Lanvin edo Chanelenak. Emakumeak jantzi zituzten emakumeak. Une horretako joerei jarraiki, beste ikuspegi eta sentsibilitate batzuek erakarri zuten, ekialdetik zetozenek, esaterako. Hainbat alderditan jarri zuen arreta: mauka mota desberdinetan, ehunen zentzuaren azterketan, josturen minimizazioan, formen sinpletasunean eta ehunaren beraren.

Balenciagak jarraitzen du bere markak Espainian garatzen eta zabaltzen: 1935. urtean Madrilen, eta 1935eanartzelanon.

Bilaketa formala (1937-1951)

Frantziako hiriburuan egindako lehen bildumatik bertatik txunditu zituen Balenciagak kritikariak; izan ere, guztiz menderatzen zuen teknika, eta kutsu espainiarreko proposamen bereizgarriak egin zituen. Edonola ere, berehala lehertu zen 2. Mundu Gerra, eta horrek eragina



izan zuen modan hurrengo urteetan: materialak eskastu ziren, emakumeek zeregin berriak hartu zituzten, eta abertzaletasuna zabaldu zen; hala, gerrari buru-belarri emana zegoen gizartean, kutsu militarreko moda nagusitu zen.

Guda amaituta, Frantziako Goi Jantzigintzak atakari egin behar zion aurre: sektorea berreraiki behar zuen, garai onei zegozkien ideia berriekin. Giro horretan bizi eta parte hartu zuen Balenciagak. 1947an biak aurkeztu zituen: batetik, garai hartan egiten ari ziren moduko modeloak, hala nola, gerri finak eta gona handiak, eta, bestetik, proposamen berriak, besteak beste, «upel» eta «globo» ildoak, zeintzuk ez baitzetozen bat indarrean zen estetikarekin.

Berrikuntza (1952-1959)

Aurreko hamarkadan hasi zen Balenciaga silueta berri baten inguruan ikertzen; 1951n aurkeztu zituen, ordea, horrekin loturiko proposamenak: modelo horietan ez dira emakumeen biribilguneak azpimarratzen, ezpada lausotzen, bereziki gerria. Horren adibide dira hiru modelo hauek: «midi», «marinel» eta «erdi-estua».

Modelo horiek hogeiko hamarkadako siluetak dakartzate gogora, horietan lausotu egiten baitzen gerria. Balenciagak, beraz, sorbalden lerroa eta soinekoen behealdea ezarri zituen erreferentzia gisa. Hortik abiatuta eratu zituen 50eko hamarkadan mugarri izango zirenak, hala nola, «tunika», «zaku» eta «baby-doll» lerroak; modelo horietan, isil-misil, elkarrengandik banatzen dira gorputza eta soinekoa, eta, aldiz, gero eta garrantzi handiago ematen zaio beste elementu bati: aireari.

Bere garaiko moda-kazetarien arabera, Balenciaga izan zen «etorkizuneko modaren bidea ireki zuen jostuna», eta, hain justu ere, bere lana apurka, isilean eta etenik gabe garatuz, ideal femeninoa aldarazi zuen, modu berritzailean, bere bezeroen begietara.



Cristóbal Balenciagaren sorkuntza-lanen ondarearen bi lagin: «midi» eta «tunika».

Arazketa eta abstrakzioa (1960-1967)

Hirurogeiko hamarkadan, Balenciagak abstrakzio handiagoko siluetak sortu zituen. Berrogeita hamarreko hamarkadan ezarritako mugarrietatik abiatuz sortu zituen soineko eta jantzi-tako bolumen handiak, orduko patrioiak berrikusiz, hala nola, «zakua», «tunika» eta «erdi-estua». Mugarriak uztartuz sortu zituen hirurogeiko hamarkadako silueta berri horietako batzuk; helburua: erreferente estetiko berriak sortzea.

Balenciagaren obrak bere-bereak ditu minimalismo kontzeptuala eta teknikoa, eta, hamarkada honetan, oihal apur bat zurrinak baliatuz lortu zuen. Adibidez, gazar, zagar eta ziberlina deritzen oihalak baliatu zituen, silueta abstraktuak eta bolumen geometrikoak sortzeko, betiere, zirkulutik eta laukitik abiatuta.

Azken urteak (1968-1972)

1968an, erretiroa hartuko zuela jakinarazi zuen Balenciagak. 52 urte egin zituen etenik gabe lanean, eta urtean 200 sorkuntza berri aurkezten zituen batez beste; beraz, haren adinak eta nekeak aise azaltzen dute zergatik erabaki zuen uztea. «Txakurrak bezala» bizi izan zela aitortu zuen bere bizitzan emandako elkarrizketa bakarrean (*Paris Match*, 1968).

Bestalde, ezin ahaztu garaiko aldaketa sozialak, politikoak eta kulturalak: Frantziako maiatza, Pragako udaberria, misilen krisia, arrazakeriaren aurkako protestak eta Vietnameko gerraren kontrako mugimendua... Horren guztiaren ondorioz, ia halabeharra zen Balenciagak jarduna uztea. 1968ko gizarte berri hura azkarragoa eta berehalakoagoa zen, errebeldeagoa eta borrokalariagoa, eta, gizarte hartan, *prêt-à-porter* delakoaren bitartez, moda demokratiko bihurtuta zegoen.

Balenciagak enkargu bakarra onartu zuen aurrez ezarritako neurrien joskintza berrian: Air France enpresaren uniformeak diseinatu eta ekoitzi zituen. Hori egin ostean, eta bere buruari leial eutsiz, modaren mundua uztea erabaki zuen, jada ez baitzen hango sentitzen.

Balenciagak "jardunean" jarraitu zuen erretiroan, bere lagunak eta ezagunak *prêt-à-porter* proiektu batzuetan aholkua eta laguntza emanaz, hain zuzen, Villabonako Subijana y Cía (Gipuzkoa) eta Tarazonako Textil (Zaragoza) enpresetan. 1971n, Züricheko Bellerive Museoak atzera begirako lehen erakusketa eskaini zion Balenciagari, eta, haren ondotik, asko izan dira gaurdaino.

Air franceko hegazki-laguntzaileentzako uniformea, 1968.



Koktel-soinekoa zaku-bizkarrarekin, zeta beltzeko krepean egina. 1966.

CBM 2012.38

© Cristóbal Balenciaga Museoa



Mugarri biografikoak

HASIERA ETA ERAGINAK (1912–1936)

- 1895 Cristóbal Balenciaga Getarian jaio zen, Euskal Herrian kokatutako marinel herri txiki batean. Marinela baten eta jostun baten semea zen, eta jaioterrian bertatik bertara ezagutu zuen mendearen hasieran errege-erreginek euskal kostaldean uda igarotzeko izan zuten joera haren gorakada.
- 1906 Casa Torres markesarentzat egin zuen lehenengo soinekoa; Cristóbal Balenciagaren mentorea izan zen, hain zuzen, emakume hura, eta haren amak egiten zizkion jostun-lanak markesari, familiarekin batera Getarian igarotzen zituen udako denboraldi luze haietan.
- 1907 Donostiara joan zen Balenciaga –udal-eroldaren erregistroaren arabera, urte horretatik aurrera Gipuzkoako hiriburuan bizi izan zen–, eta pentsa daiteke orduko moda-etxe garrantzitsuren batean, Parisko modarekin lotuta Donostian lanean ari zen etxeren batean, prestatuko zela, Casa Gómez, New England eta Almacenes Au Louvre etxeetan, ziur asko.
- 1917 Cristóbal Balenciagak enpresaren eta sorkuntzaren munduko abenturari ekin zion. Donostiako Bergara kaleko 2. zenbakian ireki zuen bere lehenengo etxea, «C. Balenciaga» izenekoa. Handik zazpi urtera, 1924an, sozietate-aldaketa ugariaren ondoren, hiri horretako Etorbideko 2. zenbakira aldatu zuen bere jostundegia, eta «Cristóbal Balenciaga» izena jarri zion.
- 1918 «Balenciaga y Cía» sortu zuen Lizaso ahizpekin, epe mugatua zuen sozietatea eratuz.

- 1924 Aurreko sozietatea deuseztatu zuen, eta hiri horretako Etorbideko 2. zenbakian, lehen solairuan, ireki zuen bere jostundegia, «Cristóbal Balenciaga» izenez.
- 1927 Bigarren marka gisa, «Martina Robes et Manteaux» sortu zuen –amaren izena zen Martina–, eta, urte horretan bertan, urrian, Donostiako Okendo kaleko 10. zenbakian kokatuta zegoen «EISA COSTURA» jostundegira eskualdatu zuen marka; azken izen horrek ere bazuen amarekin lotura, amaren abizena Eizagirre baitzen.
- 1933 Cristóbal Balenciagak Madrilen ireki zuen jostundegia, Caballero de Gracia kaleko 42. zenbakiko behe solairuan, «EISA B.E» izenarekin.
- 1935 «EISA B.E» jostundegiaren bigarren sukurtsala ireki zuen, Bartzelonako Santa Teresa kaleko 10. zenbakian.
- 1936 Gerra Zibila hasi zenean, Espainia utzi zuen, eta Parisen jarri zen bizitzen. Madrilgo eta Bartzelonako etxeetako jarduerak bertan behera utzi zituen aldi baterako.
- 1937 «EISA COSTURA» jostundegia Etorbideko 2. zenbakiko bigarren solairura lekualdatu zuen, eta «EISA B.E» izena jarri zion.

LINEA BERRIEN ESPLORAZIOA (1937–1951)

- 1937 Uztailean, Chambre Syndicale de la Haute Couture erakundean eman zuen izena, eta, Wladzio d'Attainville eta Nicolás Bizcarrondo bazkideekin batera, «BALENCIAGA» Sozietate Mugatua ireki zuen, goi-mailako jostuntzako etxea, hain zuzen, modaren historian mugarri izango zena.

- 1939 Eragin historizista nabarmeneko bilduma bat aurkeztu zuen Cristóbal Balenciagak, xvii. mendeko eta Frantziako Bigarren Inperioko moda gogorarazten zuena. «Infanta» izeneko soinekoak arrakasta itzela izan zuen.
- 1947 Otsailean, «tonneau» edo «upel» izeneko linea aurkeztu zuen Balenciagak; figura zurrinak nagusi zituen estetikatik urrunduz, eta arintasunaren aldeko apustua egin zuen bere diseinuan. Urte berean, Diorrek «Bar» trajea aurkeztu zuen.
- 1949 Lehenengo boutiquea inauguratu zen, Christos Bellosek diseinatutakoa. Soiltasuna nagusi zuen dekorazioa izan arren, dotoretasun eta luxu handiko denda zen, eta hango altzariek eta elementu apaingarriek argi erakusten zuten espainiar jatorria.
- BERRIKUNTZA (1952–1959)**
- 1951 Cristóbal Balenciagak honako hauek sortu zituen: «erdi doitutako» trajea (otsaila), «itsas blusa» (otsaila) eta «midi» (abuztua). Hogeiko urteetako siluetak zekartzaten gogora gerria lausotzen zuten modelo horiek, eta sorbaldetako linea eta soinekoen barrena ezarri zituen erreferentziatzat Balenciagak.
- 1952 Urte honetatik aurrera, Janine Janetek diseinatu zituen erakusleihoak. Eskulturak egiten zituen, eta produktuak txertatzen zituen horietan, edota oinezkoentzat zuzen-zuzenean ikusezin bilakatzen zituen, eskulturak egiteko erabiltzen zituen materialei eta eskulturek zuten izaera artistiko nabarmenari esker.
- 1955 «Tunika» aurkeztu zuen, linea zuzen eta garbiak zituen bi piezako soinekoa, hain zuzen. Gorputza estutu gabe estaltzen zuen, eta «midi» izeneko linearen bilakaera izan zen.
- 1956 Goi-mailako jostintzako desfileak ofizialki hasi eta handik hilabetera, Balenciagak bere bildumak Hubert de Givenchyrekin batera erakustea erabaki zuen.
- 1957 Esperimentazio formalean beste urrats bat eginez, «zaku» itxurako soinekoa txertatu zuen jostunak bere bildumetan, «itsas blusa» izeneko linearen bilakaera gisa. Ehunen sortzaile zen Gustav Zumstetekin batera (Abraham), gazar izeneko ehuna sortu zuen, ezaugarri eskultorikoak zituen ehuna, hain zuzen, gero eta kotzeptualagoak ziren haren sormen-lanetarako aproposa.
- 1958 «Baby-doll» izeneko soinekoa aurkeztu zuen Cristóbal Balenciagak, gerririk gabeko silueta trapezoidal sotila ezaugarri zuen soinekoa; horrez gain, paumaren isats itxurako soinekoak erakutsi zituen, atzetik aurretik baino luzeagoak zirenak. Frantziako Gobernuak *Chevalier de la Légion d'honneur* titulua eman zion, modaren industriari egindako ekarpenagatik. Nazioarteko prentsak «Goi-mailako jantzigintzaren maisu» aitortpena eman zion.
- SOILTASUNA ETA ABSTRAKZIOA (1960–1967)**
- 1960 Cristóbal Balenciagak Fabiola de Mora y Aragónen andregai-soinekoa diseinatu zuen. Torres Etxeko markesaren biloba zen ezkongai, eta, etorkizunean, Belgikako erregina izango zen.
- 1962 Gero eta forma garbiagoak eta abstraktuagoak txertatu zituen Balenciagak. Argi eta garbi ikusten ziren haren ibilbidean berezkoak izan ziren minimalismo kontzeptuala eta teknikoak, halako zurruntasun bat zuten ehunekin egindako bolumen handiko jantzietan, hala nola gazar, zagar eta ziberlina ehunekin egindakoetan.
- AZKEN URTEAK (1968–1972)**
- 1968 Cristóbal Balenciagak Air Francerentzat uniformeak diseinatzeko eta egiteko enkargua onartu zuen. Esperientzia horren ondoren, erretiroa hartzea zihoala iragarri zuen. Bizitza osoan eman zuen elkarrizketa bakarra eskaini zion Paris Match aldizkariari.
- 1969 Azken etxea itxi zuen behin betiko Donostian.
- 1971 Züricheko Bellerive Museoa (Suitza) atzera begirako lehen erakusketa eskaini zion Balenciagari, eta, haren ondotik, asko izan dira gaurdaino.
- 1972 Xábian (Alacant) hil zen Balenciaga, martxoaren 24an, 77 urte zituela, eta jaioterri zuen Getariako hilerrri txikian lurperatu zuten.


Staronen ziberlina zuriz egindako gaueko soinekoa. 1967.

CBM 2011.77

© Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciaga Museoa



Exterior del Museo Cristóbal Balenciaga en Getaria. © Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoa. Oso bilduma zabala da –3.000 pieza inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker–, eta hedadura formal eta kronologiko handia du –jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako–; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Bunny Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Rethy printzesa, Grace Kelly edota Madame Bricardek, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

Informazio praktikoa

Informazio gehiagorako:

Zuriñe Abasolo Izarra

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T 943 004 777

M 647 410 775

MUSEOAREN ORDUTEGIA

EKAINA, IRAILA, URRIA

Asteartetik igandera 10:00-19:00

UZTAILA, ABUZTUA

Astelehenetik igandera 10:00-19:00

AZAROA-URTARRILA

Asteartetik igandera 10:00-15:00

BISITA GIDATUAK

Museoak bisita gidatuak doan egiteko aukera eskaintzen du, asteburuetan eta jaiegunetan. Ordubete irauten dute. Uztailean eta abuztuan, egunero izaten dira bisita gidatuak.

Ordutegiak: Goizetan, 11:00etan eta 12:30ean.


Arratsaldeetan, 17:00etan (martxoa-urria)

Bisita pribatuak egiteko aukera, urte osoan .

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia/San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18' 6.92" N
2° 12' 18.77" W

